



150 ZUHAITZ BAINO GEHIAGO LANDATU DITUZTE AMAIUR PARKEAN

Donostiako Udalak 150 zuhaitz baino gehiago landatu ditu duela egun batzuk Amaiurko parkean, Amara Osinaga eta Loiolako Erribera artean.

Marisol Garmendia Ekologia zinegotziak adierazi duenez, "hainbat zuhaitz-landaketa egiten ari gara, denboraleen edo hirigintzako jardueren ondorioz aleak galdu zituzten eremuak birpopulatzeko Udalaren politikaren barruan. Gainera, garapen berriak aprobetxatzen ditugu hiriko zuhaitz-masa handitzeko. Aurten eta datozen hilabeteetan 10.000 kimu inguru landatzea da helburua. Amaiurko parkearen kasua horren adibide da".

Zuhaitz horien landaketa joan den astean egin zen, eta bizilagunen elkartearen laguntza izan zuten. Elkarte horrek kimu batzuk landatu zituen.

Egun hori aukeratu da, landaketak eraginkorrak eta ekinezkoak izan daitezen egokiena delako.

Prentsa oharra

Nota de prensa

"Parkearen alde batean baso txiki bat landatu da, 85 kimu urki dituen, eta gainerako eremuan 35 gereziando eta 55 haritz. Landaketa egiteko tutoreak, zuhaitzentzako hodi babesleak eta multxa jarri dira, zuhaitzentzako oso onuragarria den materia organikozko geruza bat ", esan du Garmendiak.



Oraingo honetan, Amaiurren egindako landaketa Eusko Jaurlaritzaren Itelazpi sozietatearen telekomunikazio-zentro baterako pista bat egiteko zuhaitzak mozteagatik Udaleko Hirigintza Sailak ezarritako konpentsazioaren parte da, Igeldon.